




## Eraikuntza sektoreko jarduerak behera egin du

Eraikuntzaren ekoizpena  
Urte bakoitzeko hirugarren hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

2024ko hirugarren hiruhilekoan, Euskadiko eraikuntzaren sektoreko jarduera %1,5 murriztu zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Beherakada hori eraikinen atalean (-%1,8) eta obra zibilean (-%1,1) izandako okerragotzeak eragin zuen. Halaber, enpleguak %6,3ko beherakada handia izan zuen.

## Etxebizitzaren gaineko hipotekek %2,7 egin dute gora

Etxebizitzen gaineko hipotekek  
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera bitartean




Iturria: INE.

Urtarriletik irailera bitartean etxebizitzaren gainean eratutako hipoteken kopuruak %2,7 egin zuen gora, 15.275 mailegu berrira iritsi arte, INEk argitaratutako azken datuen arabera. EBZk interes tasak jaitsi izanak eta Euriborraren bilakaeran islatu izanak (irailean %3,0aren azpitik itxi zuen, lehen aldiz 2022ko abendutik) azaltzen dute hobekuntza hori.



## Azalera handietako salmentak %2,2 gehitu ziren

Azalera handietako salmentak  
Urte bakoitzeko urria. Indizea




Iturria: Eustat.

Urrian, azalera handietako salmentak %2,2 gehitu ziren aurreko urteko hil beraren aldean. Hazkunde hori elikaduraren sektorean (%2,7) eta elikaduraz kanpoko produktuen sektorean (%1,1) kontzentratu zen. Era berean, enplegua erritmo nabarmenean sortzen jarraitu zen (%2,1).

## Estatuko KPIa % 2,4ra igo da azaroan

Estatuko KPIa  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Azaroan, KPIaren adierazle aurre-ratua %2,4ra iritsi zen, hau da, urrian baino sei hamarren gehiago. Igoera hori elektrizitatearen eta erregaien prezioen gorakadari zor zaio batez ere, aurreko urteko azaroan izandako jaitsierarekin alderatuta.